

OLENTZERO

Olentzero joan zaigu mendira lanera
intentzioarekin ikatz egitera.
Aditu duanian Jesus jaio dala
lasterka etorri da berri ematera.

Horra! Horra! Gure Olentzero!
Pipa hortzian duela eserita dago
kapoiak ere baitu arrautzatxuekin
bihar meriendatzeko botila arduakin.

Olentzero guria ezin degu ase, bakarrik jan
dizkigu, hamar txerri gazte.
Saiheski ta solomo, makina bat heste
Jesus jaio da eta, kotsola zaitzte.

Horra! Horra!...

URTE BERRI BERRI

Urte berri berri txarri belarri,
otarra bete gaztaina, gainean lukainka bi
San Nicolas Coronado, confesor es muy honrado
ale ale alegria, todo el mundo alabaria.
Aqui estamos cuatro, cantaremos dos
una limosnita por amor de Dios
aingeruak gera zerutik gatoz
poltsa badegu baina eskean gatoz.

GAUEKO IZAR

Gaueko izar argitsuena
piztutzeakin batera
Haurtxo eder bat etorri zaigu
gaur arratsean etxera.
*[Ordu ezkeroz etxeko denok
poztu ta zorutzen gera.
Haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.]* Bis

Alai ta pozik kanta dezagun
haurtxo honen etorrera
gure iluna alaitutzeko
jaio dan argi ederra.
*[Gaurtik aurrera atzerri honetan
zorionekoak gera
haurra delako zerutik honuntz
datorren Jainko berbera.]* Bis

MARI DOMINGI- (Guria)

Ardixak jeitzi, ortua landu,
jo ta ke beti basarrixan,
Mari Domingik edukitzen dau
nahikua lan urte guztixan.

Hori dala ta azken aldixan askotan ez dogu ikusi,
Baina aurtengoz ere ez gaitxu bere bisita gabe
utzi.

Horra Mari Domingi, horra Mari Domingi
Mendixak elurpian ta kaliak hotz,
Horra Mari Domingi, horra Mari Domingi
Negua epeltzen digun poz.

Asto gainian zakua hartuz,
halako egun berezixan.
Etxe danetan poza banatuz,
bueltan dogu berriz herrixan.

Dantza ta kantu,
salto ta salto gabiltza ume ta nagusi.

Gabon garaixan danon barruan umore ona nagusi.
Horra Mari Domingi, horra Mari Domingi
Mendixak elurpian ta kaliak hotz,
Horra Mari Domingi, horra Mari Domingi
Negua epeltzen digun poz.

DRINGILIN DRON

Dringilin dron, gaur Gabon,
dringilin dron, gaur Gabon,
sakela betea degu eta
besteak hor konpon. (Bis)

Sakela bero izan ezkerro,
sakela bero-beroa, gabon egunez jan eta edana
toki denetan nahikoa.
Dringilin dron...

Horrez gainera umore ona, inoiz ez bezelakoa,
batez batzuek bezela ondo, busti ezkerro barrua.
Dringilin dron...



ATXUTXIAMAIAKA

AGINALDO ESKAERA

Urte berri eguna, ez dala egun txarra
Kortara jausi dala, gure sapai zaharra.

Urte berri berri, daukanak ez daukanari
nik ez daukat eta neri, kantaretan bat
kantaretan bi, ekartzu aginaldo
jaungoikoagatik.

Aginaldo, aginaldo
Intxaurrak bota, ta ixilduko

Aginaldo batean eskila burutxo batean
Otarra bete gaztaina ta, lukainka bi gainean.

Aginaldo, aginaldo... gaztainak bota, ta ixilduko.

Iez aginaldo, aurten batere ez.

Aqui estamos cuatro cantaremos dos
Una limosnita por amor de dios.

Aginaldo, aginaldo... Intxaurrak bota, ta ixilduko.

Txarrian belarria, jango genduke
txarrian buztana, jango genduke
txarrian gibela, jango genduke
txarrian lukainka, jango genduke

Aginaldo, aginaldo... gaztainak bota, ta ixilduko.

HATOR HATOR

Hator, neska-mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dek aita barrezka
amaren poz atseginez.
Eragiok mutil aurreko danbolinari
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli, txapla, pun.
Gabon gaba pozik igaro daigun.

Epel, epel, gaur sukaldean,
aitaren ta amaren onduan
Jesus haurra jaio dela
elkarren maitasun sutsuan.
gaurko gau honen argi biziak
pozten gaitu bihotzean.

Eragiok mutil...

GABON GABEAN

Gabon gabean ohitutzen dugu, guztiok afari ona:
bixigu, legatz, makailau saltsa,
bakoitzak berak ahal duna.

Gero txurrin plin-plau, arda ta patxarra
Katuak hartuta, zabu-zabuka.

Aiton-amona eta guraso, seme- alaba guztiak,
mahai inguruan bilduko gara,
zaharrak eta gaztiak.

Gero txurrin...

Gauza ona ere kaltegarri da, gehiegizkoa denean;
Kontuz ibili pasatu gabe janean eta edanean.

Gero txurrin...

Olentzerokin jiraka gabiz, Elgoibarren kalez kale,
Bazter guztiak alaitu nahirik, umore onaren alde.

Gero txurrin...

Herri guztiak behar lukete, aske ta osasunean;
Ai zer gabonak egunen baten,
hori lortzen dugunian!

Gero txurrin...

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri,
Gurekin nahi duela Belena etorri.
Gurekin nahi badezu Belena etorri,
Jantzi beharko dezu gona zahar hori.
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni.
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni.
Hatoz, goazen, adora dezagun
Belenaen jaio den haurtxo eder hori.

AGINALDO ESKAERA

Urte berri eguna, ez dala egun txarra
Kortara jausi dala, gure sapa zaharra.

Urte berri berri, daukanak ez daukanari
nik ez daukat eta neri, kantaretan bat
kantaretan bi, ekartzu aginaldo
jaungoikoagatik.

Aginaldo, aginaldo
Intxaurrek bota, ta ixilduko

Aginaldo batean eskila burutxo batean
Otarra bete gaztaina ta, lukainka bi gainean.

Aginaldo, aginaldo... gaztainak bota, ta ixilduko.

Iez aginaldo, aurtan batere ez.

Aqui estamos cuatro cantaremos dos
Una limosnita por amor de dios.

Aginaldo, aginaldo... Intxaurrek bota, ta ixilduko.

Txarrian belarria, jango genduke
txarrian buztana, jango genduke
txarrian gibela, jango genduke
txarrian lukainka, jango genduke

Aginaldo, aginaldo... gaztainak bota, ta ixilduko.

HATOR HATOR

Hator, neska-mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaba ospatutzeko
aitaren ta amaren onduan.
Ikusiko dek aita barrezka
amaren poz atseginez.

Eragiok mutil aurreko danbolinari
gaztainak erre artean,
gaztainak erre artean,
txipli, txapla, pun.

Gabon gaba pozik igaro daigun.

Epel, epel, gaur sukaldean,
aitaren ta amaren onduan
Jesus haurra jaiola dela
elkarren maitasun sutsuan.
gaurko gau honen argi biziak
pozten gaitu bihotzean.

Eragiok mutil...

GABON GABEAN

Gabon gabeen ohituzten dugu,
guztiok afari ona:
bixigu, legatz, makailau saltsa,
bakoitzak berak ahal duna.

Gero txurren plin-plau,
ardau ta patxarra
Katuak hartuta, zabu-zabuka.

Aiton-amona eta guraso,
seme- alaba guztiak,
mahai inguruan bilduko gara,
zaharrak eta gaztiak.

Gero txurren...

Gauza ona ere kaltegarri da,
gehiegizkoa denean;
Kontuz ibili pasatu gabe
janean eta edanean.

Gero txurren...

Olentzerokin jiraka gabiz,
Elgoibarren kalez kale,
Bazter guztiak alaitu nahirik,
umore onaren alde.

Gero txurren...

Herri guztiak behar lukete,
aske ta osasunean;
Ai zer gabonak egunen baten,
hori lortzen dugunian!

Gero txurren...

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri,
Gurekin nahi duela Belena etorri.
Gurekin nahi badezu Belena etorri,
Jantzi beharko dezu gona zahar hori.
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni.
Hatoz, hatoz, zure bila nenbilen ni.
Hatoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaiola den haurtxo eder hori.